

“IKASLEENTZAT BIZIGARRI OSO GARRANTZITSUA IZAN ZEN BEREN AHOTS GRABATUA ENTZUTEA”



Aitor Uriondo | AXULAR LIZEOA (<http://www.axular.net>)
LEHEN HEZKUNTZA NEO

Aitor Uriondo “Axulartar Galaktikoak” (Donostiako Axular Lizeoa) taldearen arduraduna da. Taldeak Kosmodiseako Fono Planetan, Lehen Hezkuntzako Neo Sistemaren barruan, puntuazio altuena lortu du.

Irakasleak dienez, Kosmodisean parte hartzea lehen unetik bizigarri garrantzitsua izan zen txikientzat eta emaitza ona lortzeak sentsazio hori areagotu egin du.

Uriondorentzat, zailena, agian, sortzen ziren ideia guztiak ordenatzea izan zen. Programa informatikoak erabiltzeari dagokionez, ez zuten zailtasunik izan, aurreko urteetan erabili izan baitituzte. ***“Haurrentzat bizigarri oso garrantzitsua izan zen beren ahots grabatua entzutea, eta horrek lana burutzeko indarra eman die”***

2009-2010 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zireten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?
- ***Proiektu osoa iruditzen zaigu oso interesgarria. Sistema oso erabilgarria bihurtu da eta egunez egun eduki gehiago txertatzen ari gara. Garrantzitsua da azpimarratzea, gainera, hurrek beren etxetik parte hartzeko aukera ere badutela eta horri esker, guraso eta familiak inplika ditzakegula proiektuan.***

Eta zeintzuk dira parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

- Gauza guztiekin bezala, hastea da zailena. Etengabe ikasten ari gara eta egia esan, ez da taldeak gainditu ezin izan duen arazorik izan.